BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

946

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 13koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko ekainaren 11ko Aginduaren bidez deitutako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena; agindu horren bidez, diru-laguntzetarako deialdia egiten da Pirinioetako Lan Elkartearen lankidetza-esparruan, 2013-2014 epealdian, ikerketa-sareak eta teknologiako ikerketa- eta garapen-proiektuak garatzeko (2013ko ekainaren 18ko EHAA, 116. zk.).

Deialdi-aginduaren 11.1 artikuluaren arabera, Ebaluazio Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari aurkeztuko dio proposamena, eta honek esleitu edo ukatu egingo ditu ebazpen bakar eta arrazoituaren bidez. Ebazpen horren berri izan dezaten, EHAAn argitaratuko dira entitate onuradunen zerrenda, jasotako zenbatekoa eta finantzatu den programaren titulua.

2013ko azaroaren 6an ebatzi zen deialdia, eta interesdunei banan-banan jakinarazi zaie ebazpena; beraz, argitaratu egin behar dira emandako laguntzak, jendeak horren berri izan dezan. Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ikerketa-programak garatzeko emandako laguntzen onuradunen zerrenda eta emandako zenbatekoak argitaratzea, betiere, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko ekainaren 11ko Aginduaren babesean (2013ko ekainaren 18ko EHAA, 116. zk.); agindu horren bidez, laguntzetarako deialdia egiten da, Pirinioetako Lan Elkartearen lankidetza-esparruan ikerketa-sareak eta teknologiako ikerketa- eta garapen-proiektuak garatzeko 2013-2014 epealdian. Ebazpen honen eranskinean dator zerrenda.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 13a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ITZIAR ALCORTA IDIAQUEZ.

ERANSKINA

EBAZPENA

EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

EAE kodea	PLE kodea	Lurralde koordinat	Urteak	Proiektuaren izenburua	Ikertzaile nagusia	Onuradunak	Finantzaketa 2013 (€)	Finantzaketa 2014 (€)	Finantzaketa Guztira (€)
GAIKAKO IKERKETA-SAREAK GARATZEA ETA SENDOTZEA..						GUZTIRA	5.650	8.340	13.990
CTP2013-R01	CTP2013-R05	Aquitaine	2	Red interdisciplinar sobre las verdades de la imagen hispánica contemporánea (RIVIC)	Sojo Gil, Kepa Inazio	UPV/EHU	2.550	2.700	5.250
CTP2013-R03	CTP2013-R08	Midi-Pyrénnées	2	Nanopartículas para la oxidación y reducción catalítica de agua: un método de producción de hidrógeno	Freixa Fernández, Zoraida	UPV/EHU	2.600	4.300	6.900
CTP2013-R04	CTP2013-R07	Aquitaine	2	Tendencias Culturales Transpirenaicas (TCP)	De Diego Martínez, Rosa	UPV/EHU	500	500	1.000
CTP2013-R05	CTP2013-R09	Aquitaine	2	Archivos de familia a ambos lados de los Pirineos (historia, prácticas, documentos)	Díaz de Durana y Ortiz de Urbina, José Ramón	UPV/EHU	0	840	840
IKERKETA ETA GARAPEN TEKNOLOGIKOKO PROIEKTUAK						GUZTIRA	19.300	16.500	35.800
CTP2013-P05	CTP2013-P05	Aragón	2	Cooperación transfronteriza para la investigación de la infectividad del scrapie atípico	Castilla Castrillón, Joaquín	Asoc. CIC Biogune	13.000	13.000	26.000
CTP2013-P04	CTP2013-P03	Midi-Pyrénnées	2	Género y Trabajo: la inserción de las mujeres en profesiones del transporte estereotípicamente masculinas en la Comunidad de Trabajo de los Pirineos.	Larrañaga Eguileor, Maider	UPV/EHU	3.300	1.500	4.800
					Díez Muñoz, Nerea	Compañía del Tranvía de San Sebastián	3.000	2.000	5.000
						GUZTIRA	6.000	3.500	9.800
DEIALDIAREN GUZTIZKOA							24.950	24.840	49.790